

*Jolastu eta ikasi  
Elkanorekin*

***Puerto  
San Juliáneko  
matxinada***

## Jolastu eta ikasi Elkanorekin PUERTO SAN JULIÁNEKO MATXINADA

Gure bost ontziek hegoalderantz nabigatzen jarraitu zuten, Hego Amerika inguratzen. Kosta mendebalderantz itzuli zenean, Magallaesek garbi izan zuen: Ozeano Barerako pasabidea oso hurbil zegoen. Lurrera barruratzen zen kanal handi bat ikusitakoan, Magallaesek ontziteriari bertara sartzeko agindu zion, bila zebilen itsasarte zelakoan.

Ez zen hala, ordea. 15 egunez aurrera egin ondoren, konturatu ziren ibai bat zela eta ura geza zela. Río de la Platako estuarioa zen.. Lehen porrot horren ondoren, ez zegoen hegoalderantz jarraitzea beste erremediorik, lurralde ezezagunetarako, inoiz beste ontzirik ibili ez zen lekuetan barrena.

Patagoniara inguratu ahala, eguraldia okertzen hasi zen. Hotzak, elurrak eta izotzak zaildu egiten zigun aurrera egitea. Puerto San Julián izena jarri genion badia batean babestea beste aukerarik ez genuen izan, eguraldia hobetzeko zain, aurrera egin ahal izateko. Jana urri zen ordurako, eta Magallaesek errazioak murrizteko agindua eman zuen.

Muturreko egoera hori ikusita, kapitain batzuk aukeratutako bidea zalantzan jartzen hasi ziren, eta itzultzea erabaki zuten. Gaspar de Quesada kapitainak kargutik kendutako Juan de Cartagena askatu zuen, eta 30 gizonez betetako txalupa batean, San Antonio ontziari eraso zioten. Álvaro de Mezquita kapitaina preso hartu zuten, eta Quesadak Juan de Elgorriaga maisua zauritu zuen, hiltzeraino.



Quesadak, orduan, San Antonio ontziaren agintea hartu zuen eta bere hurrengoa izendatu ninduen.



Juan de Cartagenak hartu zuen Concepción ontzia, eta Luis de Mendozak jarraitu zuen Victoria ontziko kapitain izaten. Beraz, espedizioa osatzen zuten bost ontzietatik hiru matxinoen esku zeuden. Kontuak ez zuen itxura onik Magallaesentzat.

*Jolastu eta ikasi Elkanorekin*  
**PUERTO SAN JULIÁNEKO MATXINADA**

Matxinoak Magallaesek beren eskaerei emandako erantzunaren zain zeuden beren ontzietan. Bazirudien ez zuela irtenbiderik, matxinadak, itxura zenez, arrakasta izan baitzuen. Hala ere, estrategia bat bururatu zitzaion: txalupa bat bidali zuen, 6 gizonekin, Luis de Mendozaren esanetan zegoen Victoria ontzira, erantzuna eramateko aitzakiaz. Sorpresaz, Mendoza hil egin zuten, ontziaren kontrola berreskuratu zuten eta, beraz, Magallaesek ontzi gehienak zituen bere mende.

Itsasgizon matxinoak izutu egin ziren, eta altxamenduak porrot egin zuen. Gaspar de Quesada hil egin zuten, eta Juan de Cartagena Puerto San Juliáneko badiari utzi zuten ontziteria itsasoratu zenean, 1520ko abuztuaren 21ean, Pedro Sánchez de la Reina elizgizonarekin batera, altxamenduan parte hartu zuelako hark ere.



Zorigaiztoaren zorigaiztoz, Santiago ontzia hondoratu egin zen, itsasertza esploratzen ari zela haitzak jo eta txikituta gelditu baitzen.

San Julian badiatik abiatu eta gutxira, San Antonio ontziko pilotuak, Esteban Gómezek Álvaro de Mezquita kapitaina postutik kendu zuen eta Espainiara itzuli zen ontziarekin. Horren aurretik, Juan de Cartagena eta Pedro Sánchez de la Reina erreskatatzen saiatu zen. Haien arrastorik ere ez zuen topatu, ordea.

Abiatu ziren 5 ontzietatik hiru bakarrik gelditzen ziren.